

# Alcatel

Onetouch 2005X / 2005A

Erabiltzailearen eskuliburua



Euskaltelek itzulitako eta  
ekoiztutako eskuliburua



# Gida azkarra

Telefonoa erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago izateko, jo ezazu [www.alcatelonetouch.com](http://www.alcatelonetouch.com) webgunera, eta deskargatu erabiltzailearen eskuliburu osoa. Webgunean, ohiko galderak kontsultatu eta softwarea eguneratu dezakezu, besteak beste.

Hemen jarraitu gaitzakezu:



AlcatelOneTouchES



[www.sar-tick.com](http://www.sar-tick.com)

Telefono mugikor honek estatuan aplikatu beharreko 0,2 watt kilogramoko SAR mugak betetzen ditu. SAREn gehieneko balioak ezagutzeko, ikus erabiltzailearen eskuliburu honetako 26. orrialdea. Telefonoa gorputzetik gertu daramazunean edo hura erabiltzen duzunean, erabil ezazu osagarri baimendu bat (esaterako, gerrikoan jartzeko zorro bat), edo utz ezazu 10 mm-ko tartea telefonoaren eta zure gorputzaren artean, irrati-maiztasunarekiko esposizioari buruzko neurriak betetzen dituzula ziurtatzeko. Kontuan izan telefonoak uhin elektromagnetikoak igortzen dituela deirik egiten ez duenean ere.




## BABESTU ENTZUMENA

Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez entzun musika bolumen altuan denbora luzez. Kontuz ibili gailua belarrira hurbildu behar baduzu bozgorailua martxan dela.

# 1 Zure telefonoa

## 1.1 Teklak eta konektoreak





- Sakatu ezkerrera/eskuinera/gora/behera joateko.
- Sakatu aukera bat berresteko.
- Luze sakatu musika-errepuzitzailean sartzeko



Ezkerreko funtzio-tekla

- Teklatua desblokeatzeko
- Menu nagusira sartzeko



Bidaltzeko tekla

- Telefonoa hartzeko/ Deitzeko
- Sakatuta: deien erregistroa irekitzeko.
- Luze sakatuta: dei-simulazioan sartzeko



Eskuineko funtzio-tekla

- Kontaktuetara sartzeko
- Sakatuta: deia amaitzeko



Pantaila nagusira itzultzeko

- Luze sakatuta: Pizteko/Itzaltzeko



Luze sakatuta: Ahots-postontziaren zenbakia markatzeko



Itxarote-pantailan

- Sakatuta: 0
- Luze sakatuta: "+/P/W". Editatzeko moduan:
- Sakatuta: sinboloen taulara joateko
- Luze sakatuta: 0




Itxarote-pantailan

- Sakatuta: \*
- Luze sakatuta: teklatua blokeatzeko Editatzeko moduan:
- Sakatuta: idazteko metodoa aldatzeko
- Luze sakatu: hizkuntzen zerrendara sartzen da



Itxarote-pantailan

- Sakatuta: #
- Luze sakatu: bibragailu-modua Editatzeko moduan:
- Sakatuta:  (zuriunea)

## 1.2 Egoera-barrako ikonoak <sup>[1]</sup>

### 2005X modeloan:



Bateriaren karga-maila.



Bibrazio-modua: zure telefonoak dar-dar egiten du baina ez du txirrinik edo soinurik ateratzen, alarmen kasuan izan ezik.



Bluetootharen egoera (aktibatuta).



Bluetootharen egoera (audio-gailu bati konektatuta).



Entzungailuak konektatuta.



Teklatua blokeatuta.



Deiak desbideratzeko aukera aktibatuta: deiak desbideratzen dira.



Alarmak edo hitzorduak programatuta.



Estaldura-adierazlea.



Mezu berria ahots-postontzian.



Dei galduak.



Irratia piztuta.



Wap mezuak. <sup>[2]</sup>



Roaming-a.

<sup>[1]</sup> Eskuliburu honetako ikonoak eta irudiak laguntzeko dira.

<sup>[2]</sup> Sare-operadorearen arabera.



SD txartelaren irakurketa amaituta.



Linea-aldaketa: aukeratutako linea zein den adierazten du.



GPRS konexioaren egoera (aktibatuta).



GPRSra konektatzen



Edge-a konektatzen ari da



Edge-a atxikita



Musika-irakurgailua aktibatuta



MMSa jasotzen ari da



MMSa bidaltzen



Modu isila: zure telefonoak ez du txirrinik edo soinurik ateratzen eta ez du dar-dar egiten, alarmen kasuan izan ezik.



Irakurri gabeko SMSa



Irakurri gabeko MMSa.



(Keinuka) Mezu-zerrenda betea: zure telefonoak ezin du mezu gehiago jaso. Mezu-zerrendara joan eta gutxienez SIM txarteleko mezu bat ezabatu behar duzu.



Hegazkin-modua.

<sup>[1]</sup> Zure sare-operadorearen arabera.

## 2005D modeloon:



Estaldura-adierazlea



Dei-desbideratzea aktibatuta: deiak desbideratzen ditu.



GPRS konexioaren egoera (aktibatuta).



GPRSra konektatzen.



Edge-a konektatzen ari da.



Edge-a atxikita.

## 1.3 Pantaila nagusia

### 1.3.1 Widget-en barra

Pantaila nagusira azkar sartzeko aukera ematen duten lasterbideak dira widget-ak.

Widget-en barra hemen ere pertsonaliza dezakezu: **“Ezarpenak/Telefono-ezarpenak/Widget-barra”**.

### 1.3.2 Pantaila-atzealdea aldatzea

Karpeta bat aukeratzeko eta irudi bat pantaila-atzealde gogoko gisa ezartzeko, aukeratu **“Aukerak/Ezarri honela/Horma-papera”**.

## 2 Martxan jartzea

### 2.1 Erabiltzeko moduan jartzea

Atzeko estalkia ateratzea/jartzea




Bateria jartzea/jateratzea



Sartu bateria eta lerratu bere lekuan klik egin arte. Ireki tapa, eta, gero, atera bateria.

**SIM txartela sartzea eta ateratzea**

SIM txartel bat sartu behar duzu deiak egiteko.






Jarri SIM txartela txipa beherantz duela (SIM2 beherantz 2005D modeloan), eta sartu dagokion tokian. Egiaztatu behar bezala sartuta dagoela. Txartela ateratzeko, estutu, eta kanporantz atera.

Telefonoa automatikoki itzaliko da microSIM txartela sartu ondoren (SIM1, 2005D modeloan), eta eskuz piztu beharko duzu.

## Bateria kargatzea



Konektatu bateria-kargagailua telefonora eta korrante-hargune batera.



Kontsumoa murrizteko eta energia oker erabiltzea/xahutzea saihesteko, deskonektatu kargagailua bateria guztiz kargatuta dagoenean, itzali bluetootha eta bigarren planoan exekutatzen diren aplikazioak erabiltzen ari ez zarenean, murriztu atzeko argiaren denbora eta abar.


## 2.2 Telefonoa piztea

Luze sakatu  tekla telefonoa piztu arte.

## 2.3 Telefonoa itzaltzea

Luze sakatu pantaila nagusiko  tekla.

## 3 Deiak egitea

Markatu nahi duzun telefono-zenbakia eta sakatu bidalketa-tekla dei bat egiteko. Markatu duzun zenbakia **Kontaktuan** gorde dezakezu, **“Gorde”** hautatuz. Akats bat egiten baduzu, sakatu eskuineko funtzio-tekla okerreko digituak ezabatzeko. Esekitzeko, sakatu  tekla.

## 4 Menua

Zure doikuntzen arabera aldatzeko diseinatuta dago menu nagusia.

### Ordena aldatzea

Sartu menu nagusira, aukeratu mugitu nahi duzun menu nagusiko elementua, eta hautatu **“Aukerak|Hautatu eramateko”**. Aukeratutako elementuaren alboan  $\sqrt{\quad}$  marka bistaritzen denean, askatu zuk jarri nahi duzun lekuan.

### Erakustea/Ezkutatzea

Sartu menu nagusian, aukeratu **“Aukerak|Gehitu edo kendu menuak”**, eta hautatu aukeratutako menuaren ezkerreko gelaxka, bistaratzeko edo ezkutatzeko. Gero, gorde eragiketa.

## 5 Mezuak



### 5.1 Sartzea


Menuetara hainbat modutara sar zaitezke:

- Menu nagusira sartzeko, hautatu **“Mezuak”**.
- Aukeratu , widget-en barran, eta sartu nahi duzun azpimenuan.

## 5.2 Elkarrizketa-modua aktibatua (edo desaktibatua)

Elkarrizketa-modua aktibatuta, txataren historia kronologikoki ikus dezakezu. Elkarrizketa-modua desaktibatuta, karpeta hauetara sar zaitezke: **Sarrerako mezuak, Irteerako ontzia, Bidalitakoak, Zirriborroak, Ahots-postontzia, Sare mezuak, Hutsik, Ereduak, Ezarpenak**. Mezuak bistaratzea modu lehenetsian ezartzen da elkarrizketa-moduan. Desaktibatuzeko, sartu Mezuak menuan, eta hautatu **“Aukerak\Ezarpenak\Aldatu ikuspegi modua”**.

## 5.3 Mezua idaztea

Aukeratu **“Mezuak\Idatzi SMS/MMS berria”** menu nagusian, edo sartu  widget-era testu-mezuak edo multimedia-mezuak idazteko. SIM duala duten modeloen kasuan, mezu bat idatz dezakezu eta SIM1 eta SIM2ko agendetako edozeini bidali <sup>[1]</sup>. kontaktu-zerrendatik hartzaile bat edo gehiago gehitu ditzakezu. Sakatu “Kontaktuak”, hartzaile bat baino gehiago aukeratzeko teklarekin, **Agenda** atalean.

SMSa MMS bihurtuko da automatikoki mezuari irudiak, bideoak, audioa, diapositibak edo beste fitxategi erantsi batzuk edo testu editatuaren 8 orrialde baino gehiago gehitzen bazaizkio.



Karaktere-kopuru jakin bat baino gehiago dituen SMSa (idazten ari zaren hizkuntzaren arabera) da karaktere-kopurua) SMS bat baino gehiago izango balira bezala fakturatuko da. Argazkiak eta/edo soinuak dituen SMS mezua ere faktura daiteke mezu bat baino gehiago balira bezala. Karaktere bereziek (azentuak) handitu egiten dute SMSaren tamaina, eta baliteke hori dela-eta hartzaileak bi SMStan edo gehiagotan jasotzea mezua.

<sup>[1]</sup> 2005D modeloen bakarrik.

# 6 Kontaktuak



## 6.1 Kontaktuak kontsultatzea

Funtzio honetara sar zaitezke menu nagusian “Kontaktuak” aukeratuta. SIM duala duten modeloen kasuan, SIM1 eta SIM2ko kontaktu guztiak eskura daude menu honetan <sup>[1]</sup>.

## 6.2 Kontaktuak gehitzea



Kontaktu berri bat gehitu diezaiokezu telefonoari edo SIM txartelari, **“Sortu fitxategia”** aukeratuta.

# 7 Dei-erregistroa



## 7.1 Sarbidea

Aukera hauen bidez sar zaitezke funtziora:

- Menu nagusian, aukeratu .
- Sakatu menu-tekla pantaila nagusian.
- Aukeratu , widget-en barran, eta sartu nahi duzun azpimenuan.

## 7.2 Erabilgarri dauden aukerak

**“Aukerak”** sakatuta, aukera hauek dituzu: **Ikusi, Bidali mezua, Gorde kontaktueta, Editatu deitu aurretik, gehitu zerrenda beltzean, Gehitu zerrenda zurian, Ezabatu...**

<sup>[1]</sup> 2005D modeloan bakarrik.

## 8 Aplikazioak <sup>[1]</sup>



Apps store onlineko software-denda bat da, eta aukera ematen du zure telefonorako aplikazioak eta jokoak deskargatzeko.

## 9 Aplikazio-kudeatzailea



Deskargatutako jokoak eta aplikazioak administratu ahal izango dituzu.

## 10 Kamera



Zure mugikorrek kamera du, eta, harekin, argazkiak atera eta bideoak graba ditzakezu, eta hainbat modutara erabili:

- **“Nire irudiak”** atalean gorde, telefonoan edo SD txartelean.
- Multimedia-mezu batean (MMS) bidali, mugikor batera.
- Zuzenean MMS edo bluetooth bidez bidali.
- Pantaila nagusia pertsonalizatu.
- Direktorioko kontaktu bati sarrerako irudi gisa esleitu.
- Datu-kable bidez edo microSD txartel bidez ordenagailura transferitu.

<sup>[1]</sup> Sare-operadorearen arabera.

# 11 Multimedia-aplikazioak

## 11.1 Musika



Aplikazio honetara sar zaitezke menu nagusitik **“Musika”** hautatuta. Zure mugikorreko eta zure memoria-txarteleko musika kudeatzeko malgutasun osoa izango duzu.

## 11.2 Irudiak



Telefonoan edo SD txartelean (**“Nire irudiak”** atalean) gordetako irudietarako lasterbidea ematen du liburutegiak, markak jartzeko edo pantaila-atzealde gisa, pizteko/itzaltzeko pantaila gisa edo sarrerako deien irudi gisa definitzeko edo MMS edo bluetooth bidez bidaltzeko.

## 11.3 Bideoak



Telefonoko zein SD txarteleko bideoklip guztiak ditu (**“Bideoak”** atalekoak), eta aukera ematen du erreproduzitzeko, bidaltzeko, pizteko/itzaltzeko pantaila gisa ezartzeko, ezabatzeko, izena aldatzeko, ordenatzeko eta abar.

## 11.4 FM irratia



Zure telefonoaren irratia<sup>(1)</sup> RDS<sup>(2)</sup> funtzioa du. Zure telefonoa irradi arrunt gisa erabil dezakezu, eta kanalak gorde. Pantailan irratsaioari buruzko informazioa ikus daiteke Visual Radio zerbitzua eskaintzen duten kanalak sintonizatuz gero. Beste aplikazio batzuk exekutatzen dituzun bitartean, irratia entzun dezakezu.

<sup>(1)</sup> Irratiaren kalitatea une horretan zauden eremuan kateak duen estalduraren arabera da.


<sup>(2)</sup> Sare-operadorearen eta merkatuaren arabera.

## 12 Nire fitxategiak



Telefonoan edo SD txartelean **“Fitxategiak”** atalean jasotako audio- eta bideo-fitxategi guztietara sar zaitezke. Aukera honen bidez, beste aukera hauetara sar zaitezke: **Nire audio fitxategiak, Nire irudiak, Jasotakoak, Nire bideoak** eta abar.

**SD txartela sartzea:**



Lehenik eta behin, kendu microSD txartelaren euskarria. Sartu microSD txartela urre-koloreko kontaktuak behera begira dituela. Azkenik, jaitsi microSD txartelaren euskarria.

# 13 Aplikazioak

## 13.1 Facebook <sup>[1]</sup>



Jendea lagunekin, lankideekin, ikaskideekin edo inguruan bizi direnekin konektatzen du Facebook sare sozialak. Erabiltzaileei elkarreaginerako aukera ematen dieten ezaugarri batzuk ematen ditu, hala nola Horma, Bultzadak eta abar. Kontu bat irekitzeko, sartu hemen: <http://www.facebook.com/>.

## 13.2 Twitter <sup>[1]</sup>



Twitter sare soziala eta mikroblog-zerbitzua da; mundu osoan harrera beroa izan du, eta oso ezaguna da. Mugikorren erabiltzaileek berriak eta ideiak argitara ditzakete mezuen edo "post"en bidez. "Post"ak egilearen profileko orrian agertzen dira, eta jarraitzaileei bidaltzen zaizkie. Kontu bat irekitzeko, ikus: <http://m.twitter.com>.

# 14 Jokoak



Zure joko gogokoak telefonora deskargatzeko balio du.

# 15 SIM zerb.



Jarri harremanetan sarearen operadorearekin, eskura dituzun zerbitzuen berri izateko.

<sup>[1]</sup> Lehenik, deskargatu aplikazioa.



# 16 Tresnak

## 16.1 Alarma



Zure telefono mugikorrek iratzargailua du, eta berriz jotzeko funtzioa dauka.

## 16.2 Kalkulagailua



Funtzio honetara sartzeko, hautatu **“Kalkulagailua”** menu nagusian. Idati zenbaki bat, aukeratu egin nahi duzun ekintza nabigazio-teklak erabiliz, eta idatzi bigarren zenbakia. Ondoren, sakatu **“=”** emaitza bistaratzeko.

## 16.3 Egutegia



Menu nagusitik menu honetara sartzean, hilabeteka antolatutako egutegi bat aurkituko duzu zure bilera eta hitzordu garrantzitsuak jasotzeko, besteak beste. Gertaerak dituzten egunak kolorez agertuko dira.

## 16.4 Oharrak



Testu-formatua duen ohar bat sor dezakezu menu nagusiko **“Oharrak”** aukeran.

## 16.5 Bluetooth®



Funtzio honetara sartzeko, sakatu **“Menú”**, pantaila nagusiko ezkerreko funtzio-tekla erabiliz menu nagusira sartzeko, eta, gero, hautatu **“Bluetooth”**.

## 16.6 Bihurgailua



Pisu- eta luzera-aldatzailea erabil dezakezu, aldatu nahi duzun unitatea aukeratuta. Ondoren, idatzi zifrak, eta berretsi **“Ados”** sakatuta.


## 16.7 Ahots-alarma



Menu honen bidez, ahots-fitxategia sor dezakezu eta alarma gisa definitu.

## 16.8 Dei-faltsua



Programa honen bidez, zeure buruari deitu diezaiokezu izen bat edo deizenkaki bat eta dei-tonu bat simulatzeko ordu jakin batean. Erabilgarria da egoera sozial batetik nahi duzunean edukazioz alde egiteko. Dei hori baztertzeko,  tekla erabil daiteke. Aktibatu dei-simulazioa **“Dei faltsu modua/Aktibatu”** aukeran.

## 16.9 Deiairen iragazkia



Aktibatu zerrenda beltza: zerrendako solaskide guztiak automatikoki blokeatuko dira.

Aktibatu zerrenda zuria: zerrendako solaskideak baino ezingo dira komunikatu zurekin.

## 16.10 Internet



Wap aukeretara sartzeko: **Hasierako orria, Laster-markak, Joan URLa, Azken WAP helbidea, Ikusitako azken orrialdeak, Lineaz kanpoko orriak, Sarr. Ontzia, Ezarpenak.**

# 17 Profilak



Menu honen bidez gertaera eta inguru bakoitzaren dei-tonuak pertsonaliza ditzakezu.

**Alcatel-Lucent-en marka erregistra-  
tua da ALCATEL, eta TCT Mobile Limi-  
teden lizentziarekin erabiltzen da.**

**Eskubide guztiak, erreserbatuta (c)  
Copyright 2013 TCT Mobile Limited.**

**Aldez aurretik iragarri gabe  
materialak edo xehetasun  
teknikoak aldatzeko eskubidea du  
TCT Mobile Limitedek.**



### **BABESTU ENTZUMENA**

Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez entzun musika bolumen altuan denbora luzez. Kontuz ibili gailua belarrira hurbildu behar baduzu bozgorailua martxan dela.



## 18 Doikuntzak

Pantaila nagusian, aukeratu  ikonoa, eta aukeratu nahi duzun funtzioa telefonoa pertsonalizatzeko: **Ezarpenak, Telefono-ezarpenak, Dei-ezarpenak, Sarea, Konektagarritasuna, Segurtasuna, Berrezarri lehents.** <sup>[1]</sup>, **SIM Dualeko ezarpenak** <sup>[2]</sup>.

## 19 Atera ahalik eta etekin handiena zure mugikorrari

### PC programa-paketea

[www.alcatelonetouch.com](http://www.alcatelonetouch.com) webgunetik deskargatu dezakezu doan PCko programa-paketea. Programa-paketeen hauek sartzen dira:

- **Segurtasun-kopiak egitea/leheneratzea**

Mugikorreko informazio garrantzitsuaren segurtasun-kopiak egin eta nahi duzunean hura leheneratu ahal izango duzu.

- **GPRS modema**

Erabili zure telefono mugikorra ordenagailua Internetera konektatzeko.

- **Multimedia-pertsonalizazioa**

Pertsonalizatu telefono mugikorra, soinuekin, melodiekin, irudiekin eta animazioekin.

- **Mezuak**

Zure ordenagailuan SMS/MMSak idatz dezakezu erraz eta mugikorrera transferitu.

### Sistema eragile bateragarria

Windows XP/Vista/Windows 7.

<sup>[1]</sup> Berreskuratu telefonoaren doikuntza lehenetsiak. Erabiltzaile-datuak ez dira ezabatuko. Sartu pasahitz lehenetsia (1234) datu lehenetsiak berrezarri nahi dituzula baieztatzeko.

<sup>[2]</sup> 2005D modeloan bakarrik.

## ONE TOUCH Upgrade

ONE TOUCHen eguneratze-tresna erabiltzen baduzu, telefonoaren softwarea eguneratu dezakezu zure ordenagailutik.

Deskarga ezazu ONE TOUCH Upgrade tresna ALCATELen webgunean ([www.alcatelonetouch.com](http://www.alcatelonetouch.com)), eta instalatu ordenagailuan. Abiaraz ezazu tresna, eta eguneratu zure telefonoa, argibideak urratsez urrats jarraituz (kontsultatu ezazu tresnarekin batera datorren erabiltzailearen eskuliburua).

Zure telefonoak, orduan, softwarerik berriena izango du instalatua.



Informazio pertsonal guztia behin betiko galduko da eguneratze-prozesuaren ondoren. Gomendatzen dizugu, eguneratu aurretik, zure datu pertsonalen segurtasun-kopia egitea, PC programa-paketearen bidez.

## Sistema eragile bateragarria

Windows XP/Vista/Windows 7.

## Webcam <sup>(1)</sup>

Telefonoa webcam moduan erabil dezakezu ordenagailuko bat-bateko mezularitzarako.

- Konektatu zure telefonoa ordenagailura USB kable baten bidez.
- Joan ordenagailuaren **Kontrol-panela** atalera, eta bilatu USB bideo-gailuak (eskanerrak eta kamerak atalean).

<sup>(1)</sup> Webcam-aren funtzionamendua desberdina izan liteke ordenagailuaren sistema eragilearen arabera.

# 20 Testua idazteko modua

Mezuak idazteko bi idazketa-metodo daude:

- **Arrunta:** modu honekin, letrak edo karaktere-segidak hautatu behar dituzu testua idazteko.
- **Testua modu prediktiboan sartzea, eZi moduan:** modu honekin, azkarrago idatz daiteke testua.

## Teklatuarekin idaztea:

 : Sakatuta: sinboloen taulara joateko.

 : Sakatuta: idazteko metodoak aldatzeko.

 : Sakatuta: zuriune bat sartzeko.

# Erabiltzeko oharrak

Telefonoa erabili aurretik, irakurri arretaz kapitulu hau. Fabrikatzailea ez da izango telefonoa behar bezala ez erabiltzeagatik eta/edo eskuliburu honetako argibideen arabera ez erabiltzeagatik izan litezkeen ondorioen erantzule.

## • **SEGURTASUNA IBILGAILUAN**

Egin berri diren azterketek frogatu dutenez, telefono mugikorra gida-tzean erabiltzea arrisku-faktore erreala da, baita esku libreko osagarria (ibilgailuetako kita, esku libreko kit eramangarria...) erabiltzea ere. Hori dela eta, autoa aparkatu arte telefonoa ez erabiltzea gomendatzen zaio gidariari.

Gidatzen ari zaren bitartean, ez erabili telefonoa edo entzungailuak musika edo irratia entzuteko. Entzungailuak erabiltzea arriskutsua izan daiteke, eta baliteke zenbait eremutan debekatuta egotea.

Telefonoak erradiazioa igortzen du piztuta dagoenean, eta horrek ibilgailuko ekipo elektronikoetan interferentziak sor ditzake; adibidez, gurpilak ez blokeatzeko sistemetan (ABS), segurtasuneko airbagean eta abar. Horregatik, neurri hauek hartu behar dituzu:

- ez jarri telefonoa aginte-mahaiaren gainean edo airbaga zabaltzen den eremuan,
- galdetu ibilgailuaren fabrikatzaileari edo kontzesionarioari ibilgailu barruko tresnak telefono mugikorraren irratia-maiztasunaren aurka behar bezala babesturik dauden.

## • **ERABILTZEKO KONDIZIOAK**

Noizean behin telefonoa itzaltzea aholkatzen dizugu, funtzionamendua optimizatzeko.

Itzali telefonoa hegazkinetan.

Ez piztu telefonoa ospitaleetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Gailu hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoen edo irratia-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzio-namenduan eragin dezake.

Ez piztu telefonoa gas edo likido sukoietatik hurbil. Errespetatu arauak erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan.

Piztuta dagoenean, ez jarri inoiz telefonoa tresna mediko batetik (taupada-markagailua, belarriko protesia, intsulina-ponpa eta abar) 15

cm baino gutxiagora. Deietan, bereziki, ez ipini telefonoa taupada-markagailua edo belarriko protesia duzun aldeko belarrarian, baizik beste aldekoan.

Entzumen-arazorik ez izateko, hartu deia telefonoa belarrira hurbildu aurretik. Esku libreko funtzioa erabiltzean, urrundu telefonoa belarritik. Bolumen anplifikatua kaltegarria izan liteke entzumenerako.

Ez utzi haurrei telefonoa edo haren osagarriak erabiltzen edo haiekin jolasten zu inguruan ez bazaude.

Karkasa desmuntagarria aldatzean, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela produktuak.

Kontu handiz ibili beti telefonoarekin, eta gorde ezazu hautsik gabeko leku garbi batean.

Ez utzi telefonoa kondizio txarrak dauden tokietan (hezetasuna edo kondentsazioa, euria, likidoak sartzea, hautsa, itsas brisa eta abar). Fabrikatzaileak  $-10^{\circ}\text{C}$  eta  $+55^{\circ}\text{C}$  bitarteko tenperatura gomendatzen du.

$55^{\circ}\text{C}$ -tik gorako tenperatura badago, baliteke pantailan jartzen duena irakurtzerik ez izatea, baina hori behin-behineko egoera da, eta ez dakar arrisku berezirik.

Telefono-sare batzuetan, ezin da deitu zenbait larrialdi-zenbakitara. Larrialdi-deiak egiteko, ez egon zure telefonoaren mende. Baliteke huts egitea.

Ez saiatu telefonoa irekitzen, desmuntatzen edo konpontzen.

Telefonoa ez dadila erori; ez jaurti, eta ez saiatu tolesten.

Ez pintatu telefonoa.

Zure telefono-modeloarekin bateragarriak diren ALCATEL ONE TOUCH bateriak, kargagailuak eta osagarriak bakarrik erabili. Hala egiten ez bada, TCT Mobile Limitedek eta haren filialek ez dituzte beren gain hartuko gerta daitezkeen kalteak.

Ez bota telefonoa udalaren zabor-ontzietara. Ongi irakurri produktu elektronikoak zakarretara nola bota behar diren zehazten duen tokiko araudia.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak jasan litzakete edo kordea gal lezake te argi distiratsuen ondorioz (adibidez, bideojokoetakoak). Epilepsia-krisi horiek edo kordearen galera inoiz jasan ez duenak ere izan lezake. Inoiz krisiren bat izan baduzu edo kordea galdu baduzu, edo zure familian



horrelako zerbait gertatu izan bada, galdetu medikuari telefonoan bideojoko horiek erabili aurretik edo telefonoko argi distiratsuak aktibatu aurretik.

Gurasoek zaindu behar dituzte haurrak, bideojoko horiek edo argi distiratsuak dituzten beste funtzio batzuk erabiltzen dituztenean. Norbaitek sintoma hauetako bat edukiz gero, telefonoa erabiltzeari utzi, eta medikuari galdetu behar dio: konbultsioak, begietako edo muskuluetako uzkurdurak, kordearen galera, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Sintoma horiek izateko aukerak mugatzeko, hartu neurri hauek:

- nekatuta bazaude edo lo egiteko beharra baduzu, ez jolastu telefono mugikorarekin eta ez erabili argi distiratsua duten funtzioak,
- ordu oro gutxienez 15 minutuko atsedena hartu,
- jolastu beti gelako argiak piztuta daudela,
- jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.
- jolasten ari zaren bitartean, eskuak, eskumuturrak edo besoak nekatu egiten bazaizkizu edo minduta sentitzen badituzu, hartu atsedena hainbat orduz berriro jokatzen hasi aurretik,
- jokatzen ari zaren bitartean edo jokatu ondoren, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta segitzen badute, ez jolastu gehiago eta joan medikuarenera.

Zure telefonoko jokoak erabiltzean, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste atalen bateko giharretako mina eduki dezakezu. Segitu jarraibideei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo muskuluetako edo hezurretako beste lesiorik ez izateko.



#### BABESTU ENTZUMENA

Entzumenari kalterik ez eragiteko, ez entzun musika bolumen altuan denbora luzez. Kontuz ibili gailua belarrira hurbildu behar baduzu bozgorailua martxan dela.

#### • BIZITZA PRIBATUA ERRESPEATZEA

Telefono mugikorrekin argazkiak ateratzeari eta soinuak grabatzeari buruz zure herrialdean indarrean dauden lege eta arauak errespetatu egin behar dituzu. Arau eta lege horien arabera, erabat debekaturik dago beste pertsona batzuen edo haien ezaugarri pertsonalen argazkiak egitea eta/jedo haien ahotsak grabatzea eta argazki edo grabazio horiek erreproduzitzea edo banatzea, bizitza pribatua urratzen dela ulertzen baita. Erabiltzailearen ardura da dagokion baimena duela ziurtatzea, beharrezkoa bada, elkarrizketa pribatuak edo konfidentzialak grabatzeko edo beste pertsona bati argazkiak ateratzeko; zure mugikorraren

fabrikatzaileak, banatzaileak edo saltzaileak (eta operadoreak) ez dute izango telefonoa behar ez bezala erabiltzeak eragindako ondorioen ardurarik.

## • BATERIA

Bateria kendu aurretik, ziurtatu telefonoa itzalita dagoela. Bateria erabiltzean, ohar hauek izan behar dira kontuan:

- Ez ireki bateria (substantzia kimikoak jariatzeko eta erretzeko arriskua dago).
- Ez egin zulorik, ez desmuntatu, eta ez eragin zirkuitulaburrik.
- Ez bota sutara, ezta zaborretara ere, eta ez eduki 60°C-tik gorako tenperaturetan.

Bateria bota nahi baduzu, ziurtatu ingurumena babesteari buruz indarrean dauden legeen arabera berreskuratuko dela. Ez erabili bateria sortu zen helbururako ez den beste erabilera baterako. Ez erabili inoiz hondatutako bateriarik edo TCT Mobile Limitedek eta/jedo haren filialek aholkatu gabekorik.



Zure telefonoak, bateriak edo osagarriek ikur hau badute, gune hauetako batera eraman behar dituzu gehiago erabil ezin ditzakezunean:

- Ekipo-mota horientzako edukiontzi bereziak dituzten udal-hondakinak deuseztatzeko zentroetara.
- Saltokietako edukiontzietara.

Produktuak birziklatu egingo dira, ingurumenean substantziarik ez zabaltzeko, eta, haren osagaiak, berrerabili.

### **Europako Batasuneko herrialdeetan:**

doakoa da bilketa-puntuetara sartzea, eta ikur hori duten produktu guztiak toki horietan utzi behar dira.

### **Europako Batasuneko kide ez diren herrialdeetan:**

herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko aukera badago, produktu horiek ez dira bota behar zakarrantzi arruntetara. Bilguneetara eraman behar dira, birziklatzera. ERNE! BESTE MODELO BATEN BATERIA JARRIZ GERO, LEHERTZEKO ARRISKUA DAGO. ERABILITAKO BATERIAK BOTATZEKO, SEGI EMANDAKO JARRAIBIDEEI.

## • KARGAGAILUAK

Saretik elikatzen diren kargagailuek 0 °C eta 40 °C bitartean funtzionatzen dute.

Zure telefonoaren kargagailuak informazio-tratamendurako eta bulegoko segurtasun-arauak betetzen ditu, eta erabilera horretarako bakarrik diseinatuta dago. 2009/125/EE Ekodiseinuari buruzko Direktiba ere betetzen du.

## • UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK

Telefono mugikorren modelo guztiak nazioarteko eskakizunekin (ICNIRP) edo Europako 1999/5/EE (R&TTE) Direktibarekin bat etorri behar dute, eta hori, gainera, merkatuan sartu aurretik bete beharreko baldintza da. Osasuna eta segurtasun publikoa babestea -batez ere telefono mugikorren erabiltzaileena- eskakizun edo direktiba horien funtsezko betebeharra da.

### TELEFONO MUGIKOR HONEK UHIN ELEKTROMAGNETIKOEKIKO ESPOSIZIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK BETETZEN DITU

Zure telefono mugikorrek irradi-uhinak (uhin elektromagnetikoen irradi-maiztasuna) igorri eta jasotzen ditu, eta nazioarteko araudietan gomentatzen diren uhin elektromagnetikoen esposizioari buruzko mugak errespetatzeko diseinatu da. Arau horiek zientzia-batzorde pribatu batek garatu ditu (ICNIRP, Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak), eta erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzeko segurtasun-tarte garrantzitsu bat bane hartzen dute, erabiltzaile horien adina edo osasun-egoera edozein direla ere. Absortzio espezifikoaren tasa (SAR, specific absorption rate) deritzen neurri-unitatea erabiltzen dute uhin elektromagnetikoen esposizioari buruzko arauak, zeinak telefono mugikorrek igortzen duten irradi-maiztasuna neurtzen baitu. Telefono mugikorretarako, 2,0 watt/kilogramo muga dago.

SAR probak potentzia-mailarik altuena igortzen duten telefono mugikorretan egin dira, maiztasun-banda guztietan eta funtzionamendu estandarreko posizioetan. Hauek dira SAR balio altuenak, ICNIRP batzordeak modelo honetarako ezarritako arauen arabera:

## 2005X:

<b>Modelo honentzako eta probetan izan ziren kondizioetarako gehieneko SAR balioa</b>		
Burutik gertu erabiltzeko SAR balioa	GSM 900 + bluetootha	1,03 W/kg
Gorputzerako SAR balioa	DCS 1800 + bluetootha	0,937 W/kg

## 2005D:

<b>Modelo honentzako eta probetan izan ziren kondizioetarako gehienezko SAR balioa</b>		
Burutik gertu erabiltzeko SAR balioa	GSM 900 + bluetootha	1,03 W/kg
Gorputzerako SAR balioa	DCS 1800 + bluetootha	0,937 W/kg

Telefono honen benetako SAR balioak, erabiltzen den bitartean, adierazitako balio horiek baino baxuagoak dira oro har. Izan ere, eraginkortasun-sistema betetzearren eta sareko interferentziak murriztearren, telefonoaren potentzia operatiboa automatikoki murrizten da deiak egiteko potentzia osoa behar ez denean. Zenbat eta txikiagoa izan telefonoaren potentzia, orduan eta txikiagoa izango da haren SAR balioa. Gorputzeko SAR probak egiteko, 10 mm-ko tartea utzi da gorputzaren eta telefonoaren artean. Telefonoa erabiltzen denean irradi-maiztasunarekiko esposizioari buruzko arauak betetzeko, gutxienez tarte hori utzi beharko litzateke telefonoaren eta gorputzaren artean. Ez baduzu osagarri baimendu bat erabiltzen, ziurtatu produktuak ez duela metalik eta telefonoa gorputzetik tarte horretara geratzen dela.

Osasunaren Mundu Erakundeak adierazi du informazio zientifikoa horrek ez duela ziurtatzen ez denik beharrezkoa neurri bereziak hartzea telefono mugikorrek erabiltzeko garaian. Esposizioa murriztu nahi baduzu, mugikorraren erabilera murriztea gomendatzen da, edo, bestela, esku libreko aukera erabiltzea, telefonoa gorputzetik eta burutik urruti edukitzeko.

Informazio gehiago izateko, ikus [www.alcatelonetouch.com](http://www.alcatelonetouch.com) webgunea.

Hurrengo orri honetan, eremu elektromagnetikoei eta osasun publikoari buruzko informazioa duzu: <http://www.who.int/peh-emf>.

Zure telefonoak barneko antena bat du. Komunikazioetan funtzionamendu-kalitaterik onena izateko, ez ukitu edo hondatu.

Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, belarriaren ondoan erabiltzeaz gain, beste posizio batzuetan ere erabil daitezke. Entzungailuekin edo USB datuen kablearekin erabiltzean, gailuak dagokion norabidean egon behar du. Beste osagarriren bat erabili behar baduzu, ziurtatu ez duela inolako metalik, eta kokatu telefonoa gorputzetik 10 mm-ra gutxienez.

## • LIZENTZIAK

 eZiText™  
Zi corporation

Obigo®

 MicroSD



Zi corporation-en eta/edo haren bazkideen marka komertzialak dira eZiText® eta Zi®.

Obigo AB-ren marka erregistratua da.

MicroSD-ren logotipoa marka komertziala da.

Bluetooth hitzaren marka eta logotipoak Bluetooth SIG, Inc. enpresarenak dira, eta TCT Mobile Limited-ek eta horren filialek marka horiek lizentziapean erabiltzen ditu. Gainerako marka eta izen komertzial guztiak dagozkien jabeenak dira.

### **ALCATEL 2005X/2005D Bluetooth QD ID B020475**

Facebook, Inc.-ren marka komertzialak dira Facebook eta f logotipoa, eta lizentziapean erabiltzen dira.

Twitter, Inc.-ren marka komertzialak dira Twitter eta T logotipoa, eta lizentziapean erabiltzen dira.

 facebook

 twitter

# Informazio orokorra

- **Interneteko helbidea:** [www.alcatelonetouch.com](http://www.alcatelonetouch.com)
- **Bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren zenbakia:** ikus "TCT Mobile Services" liburuxka edo Interneteko gure gunea.
- **Helbidea:** Room 1910-12A, Tower 3, China HK City, 33 Canton Road, Tsimshatsui, Kowloon, Hong Kong.

Interneteko gure gunean, on line kontsultatu ahal izango duzu ohiko galderen foroa (FAQ), edo zuzenean gurekin harremanetan jarri ahal izango zara posta elektronikoz galderak egiteko. Erabiltzailearen eskuliburu honen ingeleseko edo beste hizkuntza batzuetako bertsioak Interneteko gure helbidean deskarga ditzakezu: [www.alcatelonetouch.com](http://www.alcatelonetouch.com)

Zure telefonoa telefono-deiak egin eta jasotzeko diseinatutako gailua da. GSM sareetan funtzionatzen du, 900 eta 1.800 MHz bandetan.

## CE | 588

Honen bidez, TCT Mobile Limitedek adierazten du ALCATEL 2005X/2005D telefono mugikorrek 1999/05/EE Direktibako oinarritzko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen dituztela.

### Lapurretaren aurkako babesa <sup>(1)</sup>

Zure telefonoa IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan eta telefonoaren memorian dago zenbaki hori. Lehen aldiz erabiltzen duzunean, komeni da zenbaki hori idaztea (\*#06# teklak sakatuta) eta leku seguruan gordetzea; izan ere, Poliziak edo operadoreak eska diezazuke telefonoa lapurtuz gero. Telefonoa lapurtzen badizute, zenbaki horrekin telefonoaren funtzionamendua blokeatu ahal izango duzu, eta beste inork ezingo du erabili, ezta SIM txartel berria jarrita ere.

### Erantzukizunik eza

Litekeena da desberdintasunak egotea gidaliburu honen eta telefonoaren benetako funtzionamenduaren artean, telefonoaren softwarearen bertsioaren arabera edo operadore bakoitzaren zerbitzu espezifikoaren arabera.

Halako desberdintasunik izanez gero, TCT Mobilek ez ditu bere gain hartzen, ez eta desberdintasun horiek eragin ditzaketen ondorioak ere; erantzukizun hori operadorearena bakarrik izango da.

<sup>(1)</sup> Galdetu operadoreari zerbitzu hau baduzun edo ez.

# Araudiari buruzko informazioa

Ohar eta onarpen hauek eskualde batzuetan aplikatzen dira, adierazten den bezala.

**2005X:**

**TCT** Mobile

TCT Mobile Europe SAS  
55 Avenue des Champs Pierreux,  
Immeuble Le Capitole 92000 Nanterre, France  
+33 1 46 52 61 00

## EC declaration of conformity / Declaración de conformidad CE

Product / Producto : GSM dual bands handheld station with bluetooth technology and FM radio / Teléfono GSM de banda dual con tecnología bluetooth y radio FM

Product identification / Identificación del producto :  
ALCATEL 2005X type salsa EU

We / Nosotros TCT Mobile Europe SAS  
55, avenue des Champs Pierreux  
92000 Nanterre  
France

Declare under our sole responsibility that the product above mentioned is conform to the applicable essential requirements of the directive 1999/5/CE and that all essential radio test suites have been carried out. Conformity assessment procedure : annex IV of the directive. / Declaramos bajo nuestra entera responsabilidad que el producto descrito anteriormente cumple con los requisitos de aplicación necesarios de la directiva 1999/5/CE y que se han llevado a cabo todas las pruebas de radio requeridas. Procedimiento de evaluación de conformidad: anexo IV de la directiva.

### Applied standards / Normas aplicadas :

- Item 3.1.a ( protection of the health and of the safety of the user ) / Artículo 3.1.a (protección de la salud y de la seguridad del usuario)
  - EN 60950-1:2006 + A11:2009 + A1:2010 + A12:2011
  - EN 62209-1 (2006)
  - EN 62209-2 (2010)
  - EN 50 360: 2001/AC:2006, Council recommendation 1999/519/EC (July 99) /

### Recomendación del consejo 1999/519/CE (July 99)

- Item 3.1.b ( protection requirements with respect to electromagnetic compatibility ) / Artículo 3.1.b (requisitos de protección por lo que respecta a la compatibilidad electromagnética)
  - EN 301 489-1 v.1.9.2 (2011-09), EN 301 489-7 v.1.3.1 (2005-11), EN 301 489-17 v.2.1.1 (2009-05)

- Item 3.2 ( effective use of spectrum so as to avoid harmful interferences ) / Artículo 3.2 (uso eficaz del espectro radioeléctrico con el fin de evitar interferencias perjudiciales)
  - EN 301 511 v.9.0.2 (2003-03), EN 300 328 v.1.7.1 (2006-10)

- This product also conforms to the applicable requirements of the directive 2004/108/EC (electromagnetic compatibility). / Este producto cumple con la directiva 2004/108/CE (compatibilidad electromagnética)

- EN 55013:2001 +A2:2006
- EN 55020:2007

- directive 2011/65/EU (RoHS - restriction of the use of certain hazardous substances) /directiva 2011/65/EU (RoHS - restricción de uso de ciertas sustancias peligrosas)

- This product can connect with a Common Mobile Phone Charger which complies with below standards: (Este producto puede conectarse con un Cargador de Teléfono Móvil Estándar que cumpla con la siguiente normativa :)

- EN301 489-34 v1.1.1 (2010-10)
- EN 62684:2010

Conformity of this product has been reviewed by the following Notified body. / La conformidad de este producto ha sido revisada por el siguiente Organismo Notificado.

American Certification Body, Inc.  
Suite C110, Whittier Avenue 6731, 22101 McLean, Virginia, United States  
Identification number: 1588

Date :2013-04-10  
Signature

TCT Mobile Europe SAS / Deputy General Manager, EMEA.

CE 1588

## EC declaration of conformity / Declaración de conformidad CE

Product / Producto : GSM dual bands handheld station with bluetooth technology and FM radio / Teléfono GSM de banda dual con tecnología bluetooth y radio FM

Product identification / Identificación del producto :  
ALCATEL 2005D type sa/sa 2SIM EUWe / Nosotros : TCT Mobile Europe SAS  
55, avenue des Champs Piereux  
92000 Nanterre  
France

Declare under our sole responsibility that the product above mentioned is conform to the applicable essential requirements of the directive 1999/5/EC and that all essential radio test suites have been carried out. Conformity assessment procedure : annex IV of the directive. / Declaramos bajo nuestra entera responsabilidad que el producto descrito anteriormente cumple con los requisitos de aplicación necesarios de la directiva 1999/5/CE y que se han llevado a cabo todas las pruebas de radio requeridas. Procedimiento de evaluación de conformidad: anexo IV de la directiva.

## Applied standards / Normas aplicadas :

- Item 3.1.a ( protection of the health and of the safety of the user ) / Artículo 3.1.a (protección de la salud y de la seguridad del usuario)
- EN 60950-1:2006 + A11:2009 + A1:2010 + A12:2011
- EN 62209-1 (2006)
- EN 62209-2 (2010)
- EN 50 360: 2001/AC:2006, Council recommendation 1999/519/EC (July 99) /

## Recomendación del consejo 1999/519/CE (July 99)

- Item 3.1.b ( protection requirements with respect to electromagnetic compatibility ) / Artículo 3.1.b (requisitos de protección por lo que respecta a la compatibilidad electromagnética)
- EN 301 489-1 v.1.9.2 (2011-09), EN 301 489-7 v.1.3.1 (2005-11), EN 301 489-17 v.2.1.1 (2009-05)
- Item 3.2 ( effective use of spectrum so as to avoid harmful interferences ) / Artículo 3.2 (uso eficaz del espectro radioeléctrico con el fin de evitar interferencias perjudiciales)
- EN 301 511 v.9.0.2 (2003-03), EN 300 328 v.1.7.1 (2006-10)

- This product also conforms to the applicable requirements of the directive 2004/108/EC (electromagnetic compatibility). / Este producto cumple con la directiva 2004/108/CE (compatibilidad electromagnética)

- EN 55013:2001 +A2:2006
- EN 55020:2007

- directive 2011/65/EU (RoHS - restriction of the use of certain hazardous substances) /directiva 2011/65/EU (RoHS - restricción de uso de ciertas sustancias peligrosas)

- This product can connect with a Common Mobile Phone Charger which complies with below standards: (Este producto puede conectarse con un Cargador de Teléfono Móvil Estándar que cumpla con la siguiente normativa :)

- EN301 489-34 v1.1.1 (2010-10)
- EN 62684:2010

Conformity of this product has been reviewed by the following Notified body. / La conformidad de este producto ha sido revisada por el siguiente Organismo Notificado.

American Certification Body, Inc.  
Suite C110, Whittier Avenue 6731, 22101 McLean, Virginia, United States  
Identification number: 1588

Date :2013-04-10  
Signature

TCT Mobile Europe SAS / Deputy General Manager, EMEA.

CE 1588



# Telefonoaren bermea

Zure telefonoa bermatuta dago bi (2) urterako<sup>(1)</sup>, jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modelo, IMEIa, data eta saltzailea.

Telefonoak erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, telefonoa eraman.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, telefonoa (edo haren piezaren bat) konpondu egingo da, edo aldatu egingo zaizu, zer komeni den.

Hiru (3) hilabeteko bermea dute konpondutako telefonoek eta haien pieza osagarriek akats horren aurka. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin daiteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen telefonoak eta/edo pieza osagarriek arrazoi hauengatik dituzten akatsak:

1) Telefonoa erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio-jarraibideak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzeagatik.

2) TCT Mobile Limitedek emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzeagatik.

<sup>(1)</sup> Erabileraren eta sarearen konfigurazioaren araberakoa izango da telefono mugikorraren bateriaren iraupena hitz egiteko denborari, jarduerarik gabeko denborari eta bizitza erabilgarri osoari dagokienez. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote telefonoa erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango duela errendimendurik onena zure telefonoak.

3) Konponketak edo aldaketak TCT Mobile Limitedek edo haren filialek edo baimendutako mantentze-zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egin badituzte.

4) Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Telefonoa ez da konponduko etiketak edo serie-zenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 Legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCT Mobile Limited edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egozten ez badigu.


Herralde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme implizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea.

Zure telefonoaren legezko bermearen aplikazioari buruzko erreklamazioen bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraikiz, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (902 113 119) edo helbide honetara idatziz:

TCT Mobile Europe SAS  
Immeuble Le Capitole  
Parc des Fontaines  
55, avenue des Champs Pierreux  
92000 Nanterre  
Frantzia

# Arazoak eta irtenbideak

Zerbitzu-zentroarekin harremanetan jarri aurretik, argibide hauei kasu egitea gomendatzen da:

- Bateria guztiz kargatzea gomendatzen da , funtzionamendu optimoa lortzeko.
- Ez gorde datu-kantitate handirik telefonoan, horrek funtzionamenduari eragin baitiezaioke.
- Erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera eta ONE TOUCH Upgrade tresna, telefonoaren softwarea formateatzeko eta eguneratzeko (erabiltzaile-datuak formateatzeko, luze sakatu # tekla, eta aldi berean pizteko/jitzaltzeko tekla sakatu deskonexio-moduan). Erabiltzailearen telefonoko datu GUZTIAK (kontaktuak, argazkiak, mezuak eta fitxategiak eta deskargatutako aplikazioak -MRE jokoak, esaterako-) betirako ezabatuko dira. Gomendatzen da ordenagailu-programen paketearen bidez telefonoko eta profileko datu guztien segurtasun-kopia egitea, formateatu edo eguneratu aurretik.

Egiaztapen hauek egin:


## Telefonoa blokeatuta dago, edo ezin da piztu

- Egiaztatu bateriaren kontaktuak ondo daudela; atera bateria eta sartu berriro, eta piztu telefonoa.

Egiaztatu bateriaren kargatze-maila, eta kargatu gutxienez 20 minutuz.

- Hala ere ez badu funtzionatzen, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera, telefonoa berrabiarazteko, edo ONE TOUCH Upgrade, softwarea eguneratzeko.

## Telefonoa desaktibatuta geratu da duela zenbait minutu

- Berrabiarazi telefonoa  tekla luze sakatuta.
- Atera bateria eta sartu berriro. Ondoren, berrabiarazi telefonoa.
- Hala ere ez badu funtzionatzen, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera, telefonoa berrabiarazteko, edo ONE TOUCH Upgrade, softwarea eguneratzeko.

## Telefonoa bakarrik itzaltzen da

- Egiaztatu ekipoa blokeatuta dagoela erabiltzen ari ez zarenean, eta ziurtatu ez duzula ustekabean itzali, pizteko tekla sakatuz blokeatzen ari zarela.
- Begiratu bateriaren karga-maila.

- Hala ere ez badu funtzionatzen, erabili erabiltzaile-datuak formateatzeko aukera, telefonoa berrabiarazteko, edo ONE TOUCH Upgrade, softwarea eguneratzeko.

### **Telefonoa ez da behar bezala kargatzen**

- Egiaztatu ALCATEL ONE TOUCH bateria bat eta kaxako kargagailua erabiltzen ari zarela.
- Egiaztatu bateria zuzen sartuta dagoela, eta, beharrezkoa bada, garbitu bateriaren kontaktua. Sartu egin behar da kargagailua konektatu aurretik.
- Egiaztatu bateria ez dagoela guztiz deskargatuta; denbora luzez deskargatuta badago, ia 20 minutu igaro daitezke pantailan bateriaren karga adierazten duen ikonoa agertu arte.
- Egiaztatu ohiko tenperaturan kargatzen dela (0 °C eta +40 °C bitartean).
- Atzerrian, egiaztatu sarrerako tentsioa bateragarria dela.

### **Telefonoa ezin da inongo sarera konektatu edo "Zerbitzurik gabe" mezua agertzen da**

- Saiatu telefonoa beste kokaleku batetik konektatzen.
- Egiaztatu sarearen estaldura operadorearekin
- Egiaztatu operadorearekin zure SIM txartela baliozkoa dela.
- Saiatu eskura dauden sareak eskuz hautatzen.
- Saiatu berriz beranduago, sareak gainkarga badu.

### **Telefonoa ezin da Internetera konektatu**

- Egiaztatu IMEI zenbakia (sakatu \*#06#) kaxan edo bermean agertzen den bera dela.
- Ziurtatu zure SIM txartelaren Interneteko sarbide-zerbitzua eskuragarri dagoela.
- Begiratu zure telefonoak Internetera konektatzeko dituen aukerak.
- Ziurtatu sare-estaldura duen toki batean zaudela.
- Saiatu beranduago konektatzen edo beste toki batetik konektatzen.

### **SIM txartel okerra**

- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Begiratu SIM txartelaren txipa hondatuta edo marratuta ote dagoen.
- Egiaztatu zure SIM txartelaren zerbitzua erabilgarri dagoela.

Ezin da dei bat egin

- Egiaztatu markatu nahi duzun zenbakia markatu duzula eta sakatu bidaltzeko tekla.
- Nazioarteko deientzat, egiaztatu herrialdeko/eremuko kodeak.
- Egiaztatu telefonoa sare batera konektatuta dagoela, eta sareak gainkargarik ez duela edo erabilgarri dagoela.
- Egiaztatu kontratuaren egoera zure operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar).
- Egiaztatu deiak ez dituzula mugatu.
- Egiaztatu zure telefonoa ez dagoela hegaldiko moduan.

### **Ezin da dei bat jaso**

- Egiaztatu zure telefonoa piztuta eta sare bati konektatuta dagoela (egiaztatu sareak gainkargarik ez duela edo eskuragarri ez dagoela).
- Egiaztatu kontratuaren egoera zure operadorearekin (kreditua, SIM txartelaren baliozkotasuna eta abar).
- Egiaztatu sarrerako deiak ez dituzula desbideratu.
- Egiaztatu ez dituzula dei jakin batzuk blokeatu.
- Egiaztatu zure telefonoa ez dagoela hegaldiko moduan.


### **Sarrerako deiaren izena edo zenbakia ez da agertzen pantailan**

- Egiaztatu operadorearen zerbitzu horretara harpidetuta zaudela.
- Deitzen ari den pertsonak bere izena edo zenbakia ezkutatu du.

### **Ez ditut nire kontaktuak aurkitzen**

- Egiaztatu zure SIM txartela ez dagoela egoera txarrean.
- Egiaztatu SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.
- Inportatu telefonora SIM txartelean gordetako kontaktu guztiak.

### **Deien soinuaren kalitatea eskasa da**

- Dei bat egiten ari zarela bolumena doitu dezakezu nabigazio-tekla sakatuta.
- Egiaztatu seinalearen intentsitatea .
- Egiaztatu entzungailua, konektorea edo telefonoaren bozgorailua garbi daudela.

### **Ezin ditut erabili eskuliburuan azaltzen diren funtzioak**

- Egiaztatu zure operadorearekin zerbitzu horiek kontratatutak dituzula.
- Egiaztatu funtzio horrek ez duela ALCATEL ONE TOUCH osagarriren

bat behar.

### **Nire kontaktuetako zenbaki bat hautatzean, ezin dut markatu**

- Egiaztatu zenbakia ongi gorde duzula fitxategian.
- Egiaztatu, atzerrira deitzen baduzu, herrialdearen aurrezenbakia hautatu duzula

### **Ezin diot kontaktu bat gehitu nire kontaktuen zerrendari**

- Egiaztatu zure SIM txartelean kontaktuak gordetzeko tokia duzula; eza-batu fitxategiren batzuk edo gorde fitxategiak telefonoko kontaktuetan.

### **Solaskideek ezin dute mezurik utzi nire ahots-postontzian**

- Egiaztatu zure operadorearekin zerbitzu hori eskuragarri dagoela.

### **Ezin naiz ahots-postontzira sartu**

- Ziurtatu zure operadorearen ahots-postontziko zenbakia zuzena dela, hemen: Mezuak|Aukerak|Alertak|Erantzungailua
- Saiatu berriz gero, sarea okupatuta badago.

### **Ezin dut MMSrik bidali, ezta jaso ere**

- Egiaztatu tokia libre duzula telefonoaren memorian.
- Jarri harremanetan sarearen operadorearekin, zerbitzuaren eskuragarritasuna eta MMSen parametroak egiaztatzeko.
- Egiaztatu operadorearekin SMS zentroaren edo MMS profilen kopurua.
- Litekeena da zerbitzariaren zentroa betea egotea. Saiatu beranduago.

### **ikonoa dar-dar egiten ari da deiak jasotzeko/egiteko pantailan**

- SMS gehiegi dituzu SIM txartelean gordeta. Kendu zenbait edo gorde itzazu telefonoaren memorian.

### **SIM txartelaren PINa blokeatuta dago**

- Jarri harremanetan operadorearekin, desblokeatzeko PUK kodea lortzeko.

### **Ezin dut telefonoa ordenagailura konektatu**

- Lehenik, instalatu ALCATEL ONE TOUCHen PCrako programen paketea.
- Egiaztatu ordenagailuak ALCATEL ONE TOUCHen PCrako programen paketea instalatzeko behar diren zehaztapen guztiak betetzen dituela.
- Ziurtatu dagokion kablea erabiltzen ari zarela.

### **Ezin ditut fitxategi berriak deskargatu**

- Egiaztatu telefonoan nahikoa memoria dagoela deskargarako.

- Aukeratu MicroSD txartela, deskargatutako fitxategiak gordetzeko.
- Egiaztatu zure operadorearekin duzun kontratuaren egoera.

### **Telefonoak ez ditu beste gailuak detektatzen Bluetooth bidez**

- Ziurtatu bluetootha aktibatuta dagoela eta beste erabiltzaile batzuek telefonoa detekta dezaketela.
- Egiaztatu bi telefonoak bluetootharen atzemate-eremuan daudela.

### **Nola lortu bateriak gehiago irautea**

- Bateria guztiz kargatu (3 ordu, gutxienez).
- Karga partzial baten ondoren, baliteke karga-maila behar bezala ez adieraztea. Kargagailua deskonektatu ondoren, itxaron 20 minutu adierazpen zehatza izateko.
- Hondoko argia behar duzunean piztu.
- Desaktibatu bluetootha, erabili behar ez baduzu.